

PRENTSAKO OHARRA

HAMAR EGUN ESKUKETARI ETA ZIRKU ARTISTEKIN KOBLAKARI TOPAKETETAN, BILBO ALDERA 400 ARTISTA INGURU EKARRIKO DITUENA

Koblakari-Bizkaiko Malabaristen Elkartek Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailarekin batera antolatu duen Jaialdi hau **AZAROAREN 29tik LARUNBATA ABENDUAREN 8ra ASTELEHENERA** arte luzatuko da Bilboko Errekalde auzoan

Koblakari 2008k publiko guztientzako ekitaldi eskaintza zabala prestatu du, Ayala Antzokian egingo den "Koblakari Ikuskizun Handia" deritzon ekitaldi nagusia, kale-antzerkia, zinema, mintegiak, kontzertuak, tailerrak, lehiaketak edota publikoa jaun eta jabe izango duen malabaristen arteko ohiko Olinpiada bezalako doako jarduerak tarteko direla

Edizio honetarako programatu diren ikuskizunen artean, honako hauek nabarmen daitezke: "Suzko gaua" deritzon ikuskizuna,aldi berean malabarista guztiak zein bere jardunean batuko dituen

Zirkua eta kale-antzerkia gustuko dutenek ezinbesteko hitzordua dute Bilbon, azaroaren 29tik abenduaren 8ra -astelehena- arte luzatuko den **KOBLAKARI 2008 VII. ESKUKETARI ETA ZIRKU ARTISTEN TOPAKETA**ren barruan eta epe honetan ikusle ororentzat antolatu diren kale antzerkiak zinema zikloak zein profesionalentzako mintegiak eta zaletuentzako tailerrak ere antolatu dira. Topaketa hau Koblakari-Bizkaiko Malabaristen Elkartek antolatu du Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailarekin batera, eta Bilboko Errekalde auzoa izango du eszenatoki, Euskal Herri osotik, Estatuko automomia erkidego desberdinetatik eta Argentina, Txile, Frantzia eta Italiatik etorritako 400 artista ingururentzat.

Zirkuko arteak bilbotarrei hurbildu eta Uria zirkuari eta kulturari lotutako hiritzat sustatzeko asmoz, "Koblakari 2008" k jarduerak eskaintza ezin zabalagoa prestatu du. Horien artean, **Koblakari Ikuskizun Handia** izango da nabarmengarriena eta aurreko edizioetan bezalaxe, Ayala Antzokian egingo da eta futbol zelaian

antolatu den **"Suzko gaua"**(Errekaldeko plazako pergolaren atzeakaldean)

Programa zehatza

Igandean, abenduak 7, VII. Eskuketari eta Zirku Artisten Topaketako gertaerarik garrantzitsuena antolatuko da Ayala Antzokian: **Koblakari Ikuskizun Handia**. Bertan, artista profesionalek ikuskizun laburren alorreko beren erreperteriorik onena eskainiko dute, kalitate tekniko eta eszenaratze bikainekoa. Ikuskizuna 21:00etan hasiko da. Dagoeneko sarrerak salgai daude 10eurotan.

Kale Antzerkiak ere protagonismo berezia izango du VII. Topaketa honetan, zirkuko teknikak ikuskizunerako oinarritzat erabiltzen dituzten zenbait konpainiaren eskutik. Igandean hilak 30ean, **'La estación del circo'** ikuskizun itinerantea Ametzolako pasealekura iritsiko da, ostirala hilak 5ean, Las Kikolas konpainiak **'Dr. Ficante'** bere ikuskizuna eskiniko du Errekaldeko plazan, larunbatean hilak 6an, Errekaldeko plazan berriro, El Gran Rufus konpainiako artistek **'Al fin y al cabo'** antzezlanaren interpretatuko dute; umeak izango dira protagonista **'Renato'** ikuskizunean 'Ganso y Cía' ren eskutik domekan hilak 7an Errekaldeko plazan; eta itxiera ekitaldirako Boloflogi magoak izango dira. Gainera, **mimo ikuskizun bi** izango dira bat nagusientzako (igandean 18:00etan) eta bestea txikientzako Puytxoren eskutik (igandean 18:00etn)

"Suzko gaua" ere galdu behar ez den ikuskizuna dugu. Ostiralean, hilak 5, futbol zelaian, Errekalde Plazaren atzekaldean, 23:30etan koblakari edizio berri honetan izango diren eskuketari gehienek parte hartuko dute argia eta sua uztartzen dituen "performance" ikusgarri honetan.

Era berean, aurreko edizioetan lortutako arrakastari erreparatuta, aurten, topaketarekin batera antolatzen diren **Profesionalen Ikastaroak** sendotzearen aldeko apustua egin da. Beste herrialde batzuetatik etorritako artistei tailer desberdinetan prestatzeko aukera eskaintzea da ikastaro hauen xedea, mailuak, hankapaluak, baskula, 'minnitrap', mimoa, antzerki fisikoa, pailazoa, akrobazia, kontortsioa, diaboloa eta beste teknika batzuk landuz, besteak beste.

Baita ere, **zaletuentzat tailerrak** egongo dira 15 orduko iraupenarekin: trapezioa, globoflexia, monozikloak, akrobaziak, 'clown', edo mazak. Hamabi tailer izango dira guztira, goizeko

ordutegian emango direlarik Kukutza Gaztetxean goizez (10:00etatik 13:00etara) eta arratsaldez (18:00etatik 21:00etara).

VII. Eskuketari eta Zirku Artisten Topaketa, astelehenean hilak 8an bukatuko da Errekalde Plazan egin ohi den **eskuketari** edo malabaristen **Olinpiadarekin**. Olinpiada publikoaren eginkizuna funtsezkoa duen herri-joko sorta da. Malabarismoak eta korrika egitea bezalako ariketa fisikoak tartekatzen dituzten joko hauek dira harrerarik onena lortu ohi duen jarduera, partaideen artean eragiten dituzten egoera barregarriengatik. Olinpiada honek, "5 pilotarekin egindako erresistentzia proba", "Monoziklo lasterketa", "Mailuen autopassing-a", "Diaboloa", "Mailuen oreka" eta beste proba batzuk hartzen ditu beren baitan, eta proba bakoitzeko irabazleari jokoarekin zerikusi zuzena duen oparia emango zaio.

Koblakari Elkartek zortzi urte daramatza zirkua eta bereziki malabarismoa sustatu eta ezagutaratzeko ahaleginean, eta 12 eta 35 urte tarteko 40 bazkidek osatzen dute. Elkartearen barruan, publikoarengan eta sektoreko profesionalen artean onespen handia lortu duten Mr. Frack, Circo Kapikua eta Hegan bezalako taldeak eta Irakalbok kalejira daude.

Bilbon, 2008ko azaroak 27.

